



## **NAFARROAKO IKASTOLEN XII. HIZKUNTZEN FERIA 2025**

Jaso, San Fermin eta Paz de Ziganda Ikastolako familia-talde batek, aurten azken ikastola honen ardurapean, 2025eko Hizkuntzen Feria antolatu du Nafarroako familientzat.

Mundu globalizatu batean bizi garenaren kontzientzia daukagu, eta, horregatik, euskal hiztun oso eta kontzienteak hezi nahi ditugu, lehen hitza euskaraz egingo dutenak eta, aldi berean, egoera ezberdinetan komunikatzeko gai izango direnak. Hizkuntzen trataera integral eta integratuan oinarritzen dugu gure praktika, hizkuntzen arteko harremana zainduz, batetik bestera transferitzeko gaitasunak landuz eta errespetuzko begirada bat sustatuz. Horretarako, eta hizkuntzen ikaskuntza sustatzeko, feria hau antolatzen dugu.

Zenbait enpresek hizkuntza-murgiltzearekin loturiko beraien eskaintzak egingen dizkiete familiei. Eskaintza horiek udarako zein ikasturte osorako izanen dira, eta adin-tarte ezberdinei begira, hemen eta atzerrian egin ahal izanen dira.

Aukeratutako enpresak, jada ezagutzen ditugun enpresak dira, hots, seriotasun eta konfiantza eman dutenak beste urte batzuetan. Azpimarratu behar da, hala ere, antolatzaileen funtzioa eskaintza aurkezten erraztea besterik ez dela. Antolatzaileek, beraz, ez dute inolako ardurarik hartzen enpresa hauen lanarekin.

### **Noiz:**

Urtarrilaren 24an, ostirala, 17:00-20:00

Urtarrilaren 25ean, larunbata, 10:30-13:30

### **Tokia:**

Paz de Ziganda Ikastola – Gimnasioan (Atarrabia)

**Animatzen zarete etortzera? Zuen zain izango gara!**